

Bergarako astekaria

Berrigara

Zoramena:
milurteko
berria

Asko eta asko etxetik
kanpora ospatzeko asmotan

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Loramendi kirolak

Eskiak + fijazioak: 24.995 pta.

Salomon botak: 16.995 pta.

Elurak zoratzen gaitu!!

Eskiak konpontzen ditugu

ARRASATE



TORREKUA



ERRETEGIA

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik



Ibargarai 37

Tf. 943 76 50 99



Aurrerapena?

Maite Mozos/ Irakaslea

Udatik hona bergararrok gero eta zailagoa daukagu bertako kale-etatik ibiltzea. Etxetik atera eta trabak besterik ez ditugu topatzen. Obrak leku guztietatik, autoz gainezka erdialdea nahiz auzoak, Zubiaurre, Fraiskozuri, Ibargarai eta San Antonio esaterako; ur putzuak nonnahi, oinezkoentzako pasabide batzuk moztuak: Ikerleku, Ibargarai... Zarata izugarri handia ordu guztietan (egunez eta gauez). Obrak direla eta gure herria hankaz gora daukagu.

Bergararen kanpo itxura aldatuz doa azkar baino azkarrago eta hau guztia zertarako? Onerako ala txarrerako? Beharrezkoak dira hainbeste etxebizitza berri?

Bitartean dirua mugitzen ari da, baina aldaketa hauek eta oztupoak ez dira izango gizartearen mesederako, azken finean etekinak pertsona pribatuek batuko baitituzte. Espekulazioarekin topo egin dugu adiskideok eta horrek asko esan nahi du. Handikeriaren munduan sartuak baikara eta ongizateko gizarte deritzon horrek nora eramaten gaitu?

Alde batetik, Bergara bisitatzera gonbidatzen dute Turismo bulegotik. Bestalde, herriak ez dauka merezi duen azpiegitura kulturala ez baita batere erakargarria alde horretatik. Hala nola garraio publiko urriak, zine aretoa hirugarren mundukoa, kiroldegia eskasa, liburutegia txikia, musikarako auditoriumik ez dago, gazteendako lokalak desagertuak, txikiendako tokiak ez nahikoak eta berdeguneak..., auskalo non.

"Alde batetik, Bergara bisitatzera gonbidatzen dute Turismo bulegotik. Bestalde, herriak ez dauka merezi duen azpiegitura kulturala ez baita batere erakargarria alde horretatik"

Oraingo honetan Beheko Estazioa bota behar dute... Daukaguna botako dute eta bitartean behin-behinekoa prestatzen ari dira ahalik eta azkarren, nahiz eta berria non kokatuko den eta nolakoa izango den jakin ez. Eraikuntza polit horrek duen garrantzia baztertuz, Bergarako historia txiki bat ahaztuz, biztanleen eskaerei kasorik egin gabe botako dutela diote.

Azaroan zehar, eta gure sentsibilitatea piztarazteko, lagun batzuek antolatu hainbat ekitaldi burutu dira gai honen lotuak, arazoa kanporatu egin baitute. Hala eta guztiz ere, mila esker egindako lanagatik eta gogoratzeagatik munduan badaudela gauza batzuk ordainezinak direnak, baina behin galduak ezin izango dira berreskuratu.

Beheko Estazioa botatzeko arrazoiak..., nahi duenak onar ditzala, baina nere iritziz ez daude justifikatuak. Kontuz, diru ahaltsua ahaztu dut eta.

Poetari jarraituz, zera esango nizuke: "Nere etxea, jada ez da nere etxea; eta herria... nere herria ez da".<

barruan




Amaia Ilarduia

Nekazalturismoa elkartekoa

"Euskaldunok gara nekazal etxeen kontsumitzaile nagusiak"

8.



I. Muruamendiaraz

Pilotaria

"Iaz profesioaletara ez pasatu izanak pena eman zidan, baina azkenean lortu dut"

23.



Pili Garzia

Ikus.Bi dendakoa

"Beti gustau izan jat modia eta probatzia pentsatu neban: dendia ipini neban"

29.

Farmaziak

Eguakitza 17:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 18:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 20:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 22:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 19: Mizpildi.

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zerua erabat estalita agertuko zaigu eta euria egingo du tarteka. Eguakitzean elurra egin dezake 300 metrotik gora, baina zapatu eta domekan tenperaturak epeldu egingo dira. Mendebaldetik gogor joiko du haizeak.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: abenduak 7



Ilgora: abenduak 16



Ilbete: abenduak 22



Ilbehera: abenduak 29

Eguzkia

Domeka, abenduak 19



Sortu: 08:35



Gorde: 17:53

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 9	9	0	32,3
Eguakitza 10	8	4	21,2
Zapatua 11	15	4	1,3
Domeka 12	13	9	5
Astelehena 13	13	3	3,2
Martitzena 14	12	6	36,6
Eguaztena 15	5	3	25,3

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 10

8-25-26-30-38-43 (osag.40/itz.8)

Astelehena 13

7-13-24-28-33-39 (osag 14/itz.2)

Martitzena 14

10-13-14-37-46-49 (osag.8/itz.9)

Eguaztena 15

7-24-29-33-36-39 (osag.35/itz.9)

PRIMITIVA

Zapatua 11

15-16-18-23-30-48 (osag.44/itz.3)

Domeka 12 Saritzarra

1-6-18-19-31-42 (osag.33/itz.8)

ONCE

Eguakitza 10: 93.430 (020 seriea)

Domeka 12: 00.910 (017 seriea)

Astelehena 13: Jaieguna

Martitzena 14: 42.389

Eguaztena 15: 52.507


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Azian barrenengo ostrua ez izan

Pertsona bat, bere ustez oso inportantea izan.

- Ez pentsau ori, bere ustez azian barrenengo ostrua dala. Esapide honetan azaren barrenengo hostoa gauza ezdeustzat hartzen da.



JUSTU OKINA

zorion agurrak



Eli Arrieta
Abenduaren 18an 30 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Pablo Franco
18an urtebetetzea. Urte askotarako! Familia, Aitor eta Ainhoa.



Iker Gardoki
Abenduaren 19an 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Rafael Alvarez
Abenduaren 28an 10 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta anaia Iker.



Leire Balanzategi
29an 7 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Unai, aita eta ama.



Idoin Madinabeitia
27an 7 urte. Urte askotarako! Lorea eta familiakoak.



Mikel Aiausti
Abenduaren 27an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



Nerea Menzanz
Abenduaren 27an 5 urte. Urte askotarako! Amama.



Amaia Jauregi
Abenduaren 25ean 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Francisco Moreno
Abenduaren 30ean 41 urte. Urte askotarako! Auskalo nor...

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

hildakoak

- Antonio Alustiza Igarzabal**
Abenduak 2, 85 urte
- Ramon Uriarte Salsamensi**
Abenduak 3, 79 urte
- Jose Francisco Irigoien Aspiazu**
Abenduak 4, 82 urte
- Julian Salsamendi Aiesta**
Abenduak 7, 99 urte
- Mercedes Zubiaurre Astoreka**
Abenduak 15, 80 urte

jaiotakoak

- Aimar Olañeta Zabaleta**
Azaroak 30
 - Ibai Sanz Zubizarreta**
Abenduak 1
 - Narrea Ugarte Garcia**
Abenduak 3
- Aste honetan, Antzuolan, ez dugu ez hildakoen eta ez jaiotakoen berririk jaso.*



Ainhoa Molpeceres
23an 3 urte. Urte askotarako! Aita, ama eta Julen.



Izortz Arozena
Abenduaren 20an 2 urte. Urte askotarako! Familiakoak, Aran eta lagunak.



German Rodriguez
Abenduaren 19an 13 urte. Urte askotarako! Gurasoak.



Gorka Egaña
Abenduaren 20an urtebete. Urte askotarako! Etxeokak.



Ion Marzo
Abenduaren 17an 4 urte. Urte askotarako! Nerea eta gurasoak.



Lide Madinabeitia
Abenduaren 19an 4 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



Urko Sarobe
Abenduaren 27an 2 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



Maria Luisa Elortza
17an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxeokak eta Luis.



Mikel Usabiaga
Abenduaren 19an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxeokak.



Iñaki Usabiaga
Abenduaren 20an 6 urte. Urte askotarako! Etxeokak.



Amaia Elortza
Abenduaren 22an urtebete. Urte askotarako! Aita, ama eta Maddi.



Xabier Berasategi
Abenduaren 21ean 5 urte. Urte askotarako! Izarra, Josu eta etxeokak.



Mikel Muniategi
giandikoetxea 19an urtebete. Urte askotarako! Etxeokak.



Iria Cuevas
Abenduaren 21ean 8 urte. Urte askotarako! Erik, Irati, Elene eta Pello.



Itxaro Elortza
Abenduaren 26an 16 urte. Urte askotarako! Lagunak.



Toñi Carmona
Abenduaren 20an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxeokak.

URTEURRENA

Kontxita
Larrea Elkoro-Iribe

Lehen urteurrenoko meza domekan, abenduak 19, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Rufina
Beistegi Umerez

Lehen urteurrenoko meza domekan, abenduak 19, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Felisa
Iturrino Intxausti

Bergaran hil zen 1999ko azaroaren 14an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.

Hurrengo alean, 1999ko ABENDUAREN 24a eta 2000ko URTARRILAREN 20a bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ANTZERKIA

► **Euskal Antzerki Topaketak** Azpeitian; Lakrimun taldearen **"Zereko zera zertzen delako zereko zerakin"** antzezlanean estreinau bihar, hilak 18, 21:30etan Zelaitxo antzokian.

► **Carmina Burana** (Carl Orff-ena) domekan, hilak 17, 20:00etan Arrasateko Amaia antzokian, Arrasate Musikaleko Perkusio taldea eta Goikobalu abesbatzaren eskutik. Sarrerak Onena tindategian salgai (2.000 pezeta).

MUSIKA

► **Jam. Sin City Six, Teen Dogs eta The Meows** gaur, eguakitza, 22:00etan. **Loquilloren emanaldia** eguenean, hilaren 23an, izango da azkenean.

► **Bat Bitten** taldea gaur, eguakitza, 23:00etan Elorrioko Ateneoan.

► **Udal Txistulari Bandaren kalejira** bihar, zapatua, 12:00etan.

► **Lagunak** elkarteak antolatuta, abenduaren 27an **futbitoaren aldeko musika jaialdia** 22:00etan Jam-en. Josune eta Edurne, Saioa eta Izaro, Aitzol Mujika, Tanatos, Los Padrinos eta Latex taldeen emanaldiak iragarri dira. Sarrerak 1.000 pezetan.

MUSIKA

Gabonetako kontzertua

Non: Udal pilotalekuan
Noiz: bihar, zapatua, 22:30etan
Sarrera: 1.000 PTA (750 PTA 26 urtetik beherakoentzat eta langabetuentzat)

Gabonetako kontzertuaren XX. edizioa izango da biharkoa. Ohikoa bihurtu denez, Bergarako musika taldeek parte hartuko dute biharko emanaldian. Lehenbizi, Udal Musika Bandak, John Williams konpositoreak "Star wars" filme sortarako idatzitako lanen selekzio bat eskainiko du. Jarraian, Aritzeta abesbatzak ondoko piezak abestuko ditu Ana Isabel Henao pianojolearen laguntzaz: "Zorongo" (Vila), "Cada noite" (Dominguez), "All thing bright are beautiful" (Rutter), "La cancion del Colacao" (Dominguez) eta "Oi Bethlehem" (Aita Donostia). Bere 20. urteurrenean, Aritzetak taldearen zuzendaritzan aritutako Gonzale

lez Chirlaque, Izaskun Labaien eta Imanol Urzelai omenduko ditu. Ondoren, Orkestraren txanda izango da, "El camino real" fantasia latindarra (Reed) interpretatuko duelarik. Orfeoia, berriz, bere 75. urteurrenean, "Lantzarena", "Arratekoa" (David Azurza zuzendariarenak), "Laudate dominum" (Mozart) eta "Cantique de Noel" (Adam) aukeratu ditu biharko. Orkestrako partaideak, Nerea Madina pianojolea eta Maria Jesus Ugalde sopranoa Orfeoia erekin arituko dira. Kontzertuari amaiera emateko, talde guztiak, Miguel Gonzalez Bastidak 1951n konposatutako "Gabonetako estanpak" eskainiko dute elkarrekin, Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean.

Sarrerak, zapatu goizean San Martin plazan eskuratu ahal izango dira.



Artxiboko argazkian, Orkestra Sinfonikoaren entsaiu bateko irudi bat.

BERTSOAK

► **Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu** bertsolariak gaur, abenduak 17, 22:30etan Elgoibarko Herriko Antzokian.

ERAKUSKETAK

► **Herriko pintoreen erakusketa** Bearteko lokalean.
► **Karlos Galarragaren margoak** erakusgai Nahikari tabernan.

► **Benito Canteroren "Paisaiak"** argazki erakusketaz zapatua arte Soraluzeko Kiroldegian.

► **Kapirixok** trenaren inguruan antolatutako argazki erakusketa Kultur Etxean, abenduaren 18tik 30era.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

LEHIAKETAK

► **Amodiozko Gutunen VIII. Berrigara Lehiaketa.** Lanak entregatzeko epea urtarillaren 10ean bukatuko da. Argibideak Jardunen. 943 76 08 19.

IKASTAROAK

► **Gorputz adierazpeneko ikastaroa,** 13-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ikastaroa Virago antzerki taldeak eman- go du, abenduaren 27tik 31era bitartean, 18:00etatik 20:00etara Zabalotegin. Izen- ematea (doan) Kultur Etxean abenduaren 23ra arte zabalik.

► **Erretzeari uzteko ikastaroa** urtarillaren 25etik otsailaren 29ra bitartean Kultur Etxean. Izen-ematea (doan) abenduaren 23ra arte zabalik. Plaza mugatuak. Argibideak Gizarte Ongizate Zerbitzuan, 943 77 91 65 zenbakian.

DEIAK

► **"Kilometroak 2000"ko materiala,** datorren urtean Azpeitian ospatuko dena, salgai izango da Barrenkalen jarriko den dendan abenduaren 23an (arratsaldez bakarrik) eta 24an eta urtarillaren 3an, 4an eta 5ean, 10:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

► **Euskal presoak Euskal Herrira** kolektiboak dei egiten

die herritarrei, Gabonak direla eta, balkoietan presoan aldeko kartelak jar ditzaten, beren familiengandik urrun aurkitzen direnengan solidaritatea azaltzeko. Bihar, zapatua, eta hilaren 24an kartelak salgai jarriko dira ohiko tokietan.

► **Bergarako Batera** plataformaren enkartelada gaur, eguakitzan, 20:00etan Plazan.

OHARRAK

► **Bedelkarrek** 100.000 pezetako 10 erosketa-bale zozketatuko ditu urtarillaren 10ean. Boletok Bedelkarreko dendetan eskuratu daitezke.

► **BKE.ko Gabonetako loteria** partizipazioak Deportivo tabernan eskuratu ahal izango dira hurrengo egunetan.

► **Udaletzeko sarreran** egoten den jaiotza bihar, zapatua, 12:00etan zabalduko da. Gabonetako argiak zapatu gauean piztuko dira.

► **Pol-Polek eski irteera** antolatu du Baqueirara urtarillaren 5etik 9ra. 943 76 48 51.

KINTADAK

► **1981n jaiotakoen bazkaria** abenduaren 24an Jam aretoan. Aurretik, 8:00etan, abes- teko elkartuko dira Zabala jate- txean. Bazkarirako izen-ematea Jam-en egin ahal izango da abenduaren 22ra arte.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

De ladron a policia

Eguakitzan: 22:30.

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

La lengua de las mariposas

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Agnes Browne

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Asterix y Obelix contra Cesar

Eguakitzan: 22:00.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena: 19:30, 21:30.

Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:00.

EIBAR. Unzaga

Deep blue sea

Eguakitzan: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30,

22:15.

EIBAR. Rialto

Caprichos del destino

Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

El guerrero nº13

Eguakitzan: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Dark city

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

La lengua de las mariposas

Zapatua: 20:00.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

La hora de los valientes

Eguena, zine-kluba: 20:15.

DE LADRON A POLICIA

Zuzendaria: Les Mayfield.

Aktoreak: Martin Lawrence,

Luke Wilson, Peter Greene.

≥ 13 URTE

Miles lapurrak diamante bat lapurtu ondoren, *Deacon* bere lagunak polizia gertatutako guztia azalduko dio. *Miles* sek diamantea ezkatutako du azken momentuan eta, diamantea berreskuratzeko itzultzean, polizia komisaldegia jarrri dutela ohartuko da...

LA LENGUA...

Zuzendaria: Jose Luis Cuerda.

Aktoreak: Fernando

Fernan-Gomez, Manuel Lozano,

Uxia Blanco. ≥ 13 URTE

1936. urtean Galiziako herri txiki batean bizi den *Moncho* mutilari eskolara joatea tokatzen zaio. *Don Gregorio* irakaslea (Fernan-Gomez) eta *Monchoren* artean erlazio berezia piztuko da, gerrak herriko biztanleak banandu arte.

AGNES BROWNE

Zuzendaria: Anjelica Huston.

Aktoreak: Anjelica Huston,

Marion O'Dwyer, Ray Winstone.

≥ 13 URTE

Aurtengo Canneseko Zine Jaialdian aurkeztu zenetik, kritika onak jaso ditu Anjelica Huston ezagunak zuzenduriko filmeak, baita Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean ere. Bere senarra hil ondoren, Dublinen bizi den *Agnes Brownek* (Huston bera) eta bere zazpi seme-alabek aurrea egin beharko dute ahal duen moduan.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



KORTA-ZAR Txokolategia

*Pintxo eta ogibartekoen
espezialitatea*

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Amaia Ilarduia bergararrak 29 urte ditu eta enpresaritza ikasketak egin zituen Donostian; denboraldi batez Banco Guipuzcoanon lanean aritu ondoren, gaur egun Nekazalturismoa elkarteko gerentea da eta elkartea honek Donostiako Kursaal jauregian duen egoitzan lan egiten du.

G. Zein da zuen elkartearen helburua? Zein lan burutzen duzue?

E. Beno, elkarte honetan EAEn dauden nekazal etxeen %90a da bazkide. 1991an sortu zen eta agroturismoaren garapena bultzatzea eta bazkideen interesak defendatzea dira gure helburu nagusiak. Horrela, administrazioa eta bazkideen arteko bitartekaritza lana burutzen dugu. Nekazal etxeen jabeak aholkatzeaz gain, ikerketa komertzialak burutzeaz eta publizitatea eta promozioa egiteaz arduratzen gara.

G. Nekazal turismoa baserriaren egoera kezkarriarentzat irtenbide bezala ulertu behar al dugu? Ematen al du hortik bizitzeko adina?

E. Euskal Autonomi Erkidegoan nekazal errentak osatzeko sortu ziren landa etxeak, eta helburu horrekin bultzatu zituen administrazioak. Horrelako etxe bat edukitzeko beharrezkoa da baserriko bestelako lanekin jarraitzea. Dena dela, baserriko errententzako gehigarri bezala oso aukera ona da; baina orokorrean, esan daiteke, ezin dela hortik bizi; gainera, kontuan hartu behar dugu baserri bakoitzak gehienera ere 6 logela izaten dituela.

G. Funtzionatzen al du horrelako proiektu batek Bergara bezalako herri batean?

AMAIA ILARDUIA

Nekazalturismoa elkarteko gerentea

“Euskaldunok gara nekazal etxeen kontsumitzaile nagusiak”



Amaia Ilarduia Kursaalera beraien bulegoan inaugurazioan joan zen irailean.

E. Beno, oraingoz landa etxe bakarra dago Bergaran, Lamaino Etxeberri, eta aurtengo udatik dago martxan. Antzuolan ere badago beste bat, Ibarre baserrian. Oso baserri ederrak dira biak ere, eta jabeak oso jatorrak. Hala ere, kontuan hartu behar da kostaldekoek arrakasta handiagoa izaten dutela; horregatik, gure elkar-

“Bezeroei baserritarra eta baserri giroa ezagutzea gustatzen zaie, eta baserriko zereginetan ere saiatzen dira”

tearen lana da era honetako zonaldeetako nekazal etxeak promozionatzea eta bultzatzea. Debagoienari dagokionean, enpresa munduko langileengana bideratzen ditugu gure esfortzuak, astegunetako alojamentua bultzatuz asteburuetakoa baino gehiago. Dena dela, Bergarako esperientzia oso berria denez, oraindik ez daukagu datu konkreturik, baina kontua gogoia eta ilusioa jartzea da, eta kalitatezko eskaintzak egitea.

G. Zer eskaintzen du horrelako baserri batek beste hotel eta horrelakoek eskaintzen ez dutenik? Zer da jendeak bilatzen duena?

E. Nekazal etxe bat aukeratzearen arrazoi nagusiak lekuaren erakargarritasuna eta lasaitasuna izaten dira; horrekin batera, nekazal giroa ezagutzea ere bilatzen dute, eta prezioak oso onak dira. Bezeroei baserritarra eta baserri giroa ezagutzea gustatzen zaie, eta bertako zereginetan laguntzen saiatzen dira gainera.

G. Zelako eta nongo bezeroak izaten dira?

E. Euskaldunok gara nekazal turismoaren kontsumitzaile nagusiak, gure inguruan mugitzea eta ezagutzea gustatzen zaigulako. Kanpotik kataluniarrak, madrildarrak, frantsesak eta alemaniarrek etortzen dira gehienbat. Bezeroaren profila, berriz, bikote gazte batena da, haurrekin.

G. Nola ikusten duzu baserriaren etorkizuna?

E. Nekazal turismoari dagokionez, planteatzen zaizkigun arazo nagusiak gainditu, edo horretan saiatu behar dugu, erakargarritasun turistiko handiko zonaldean bizi baikara, eta horri probetxua ateratzen saiatu behar dugu. Laburtuz, etorkizun handiko sektorea dela esango nuke. <


Mikel Zubimendi preso bergararrak gose grebari laga zion zapatuan

Iñaki Arietaleanizbeaskoak 15 egun gose greban egin ditu dagoeneko

Berrogeita bat egunez gose greban izan ondoren, Mikel Zubimendi "Migelon" ek bere protestaldiari utzi zion joan zen zapatuan Pariseko La Santeko kartzelan.

Zubimendik 18 kilo inguru galdu zituen eta grebaren azken egunetan bere egoerak okerrera egin zuen: zorabioak eta giharretako mina jasan zituen eta tentsioa ere baxua zeukan, joan zen eguakitzean Gara egunkariak emandako informazioaren arabera. HBko parlamentari ohiak bere protestari utzi egin behar izan zion, odola botatzen zuelako ahotik.

Maria Josefa Berastegi Mikel Zubimendiren amaren hitzetan, "Jon Enparantza Mikelen abokatua eguaztenean egon zen berarekin eta badirudi hobeto dagoela. Ez genekien ospitalean ala kartzelean zegoen, baina abokatuak kartzelan dagoela baieztatu digu. Hamazortzi kilo galdu ondoren, egun txarrak igaro ditu eta datorren astean edo errebisioa egitera eramango dute, azterketa zehatzagoa egin diezaioten". Gaur,



"Bixkai" (ezkerrean) Martutenen dago preso eta Mikel Zubimendi, berriz, Pariseko La Sante kartzelan.

eguakitza, Zubimendiren gurasoak Parisera joatekoak ziren berarekin biltzeko.

"BIXKAI" GOSE GREBAN

Bestalde, Iñaki Arietaleanizbeaskoa preso bergararrak 15 egun gose greban beteko ditu gaur. Dagoeneko 8,5 kilo galdu ditu gose greban hasi zenetik baina badirudi oraindik ez duela ahultasun sintomarik erakutsi eta bere protestarekin jarraitzeko asmoa azaldu du. Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bixkai" Martutenen dago preso, irailean Barne Ministeritzak Ouren-

setik Martutenera ekartzeko baimena eman ondoren.

Joan zen azaroaren leian 20 euskal presok gose greba egiteari ekin zioten bake prozesuan parte hartu ahal izateko euskal preso politiko guztien kaleratzea eta Euskal Herriratzea aldarrikatzeko asmoz.

ENKARTELADAK

Presoak hainbat arrazoirengatik gaixorik dauden preso guztien kaleratzea eta baldintzapeko askatasunaren epeetan direnen kaleratzea aldarrikatzen ari dira baita.

Era berean, entrega eta estradizioekin amaitzea ere eskatzen dute protesta ekitaldien bitartez. Gestorek jakinarazi dutenez, gose grebaren erruz, zazpi preso euskal eritetxeetan ingesaturik daude gaur egun.

Bien bitartean, presoek gose grebak irauten duen bitartean, Bergarako Gestorak eta Senideak taldeek deitutako enkarteladak egingo dira egunero San Martin plazan, goizez 11:30etatik 12:30etara eta arratsaldean 18:30etatik 19:30etara bitartean.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.ª ANTUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



Aste honetan jarri dira koadroan ikus daitekeen moduko kontenedore berriak, hori kolorekoak.



Mankomunitateak hirugarren kontenedorea jarri du

Debagoieneko Mankomunitateak aste honetan hirugarren edukiontzia jartze-ari ekin dio bailarako herrietan. Hori kolorekoa, hirugarren kontenedorea brik eratako ontziak, plastikozko ontziak eta metalezko ontziak (janari nahiz edari latak) batzeko erabiliko da. Bergarari dagokionez, 32 edukiontzi jarriko dira, kasu gehienetan beira eta paperak batzeko dau- den kontenedoreen alboan. Angiozarko kasuan, eliz ondoan jarri beharrean, Plazan bertan kokatuko da. Egun hauetan amaitzekoak ziren

kontenedore berriak jartze-ko lanak. Debagoieneko herrietan, guztira, 127 edukiontzi jarriko dira.

Hasiera batean, hirugarren kontenedorea martxoan jartzekoa zen baina, arazo juridikoak tartean, atzeratuz joan da proiektua. Jose Martin Gallastegi Mankomunitateko zabor gaietarako arduraduna da. Bere hitzetan, "hirugarren kontenedorea jartzean, zabor poltsa arintzeaz gain, material guztia birziklatzea lortuko da. Batutako materiala Legazpi-ko Berzik enpresara bidaliko da, bertan jasotakoaren

sailkapena egiteko. Tetra- brikak Valenziako transfor- mazio plantara eramango dira eta plastikozko ontziak Legazpin bertan birziklatu-ko dira. Metalezko ontziak, txatarrara eroango dira bes- te erabilpenen bat emateko".

Mankomunitateak gogo- rarazten duenez, "oso in- portantea da jendearen par- te hartzea, gure eguneroko zabor poltsaren bolumena- ren zati handi bat aipatuta- ko ontziek osatzen baitute. Gure zabor poltsa txikiago- tu egin daiteke eta zaborte- giek in ditugun arazoak arin- du egin daitezke".

Pol-Pol Mendizale Taldea goroldioa biltzearen kontra

Gabonak gerturatu- zen diren heinean, Pol- Pol Mendizale Taldeak goroldioa biltzearen kontrako idatzi bat helarazi digu. Pol-Polekoen arabera, goroldioa jasotzerakoan sortzen dugun kaltea itzuliezina da eta ingurugiroa babestea- ren garrantziaz sentsi- bilizatzea ezinbestekoa da; "goroldioa batzean ehundaka urte iraun duen kolonizazio proze- su geldo batekin amaitzen dugu eta txoko aberats baten paisajea- n kalteak sor ditzakegu. Goroldioak landare tal- de oso zaharrak direnez, ekosistema askotan fun- tzio garrantzitsuak bete- tzen dituzte".

Goroldioak bilakaera ekologikoan duen garrantzia ere azpimarratu nahi du Pol-Pol Taldeak. Goroldioen garrantziaz oharturik Europako Habitat Arteztarauak (92 /43/CEE Arteztaraua, ha- bitat eta baso-flora eta baso fauna babesteari buruzkoa) Gipuzkoan ditugun 10 goroldio espe- zie babesten ditu. Azkenik, herritarrei goroldioak errespetatzeko eta ez biltzeko eskatzen die Pol-Pol Mendizale Taldeak.

telkar

Ibargarai 2
943 76 27 11

Eskaintza bikainak poltsikoko telefono eta Datac ordenadoreetan

AUKERA ZABALA: telebistak, biodeoak, minikateak, walkmanak, telefaxak, aldean eramateko audioak, berogailuak, mikrouhin labeak, aspiradoreak, bizarra kentzeko makinak eta elektratresnak

Zapatu arratsaldeetan zabalik!

Zorionak





Bakearen aldeko kontzentrazioa

Alderdi politikoek eta instituzioek egindako deiari erantzunez, 400 bat herritar bildu ziren joan zen abenduaren 3an, eguerdian, "Bakearen beharra dugu" lemapean, San Martin plazan egindako bost minutuko kontzentrazioan. Udaleko alderdi politikoetako kideekin batera, herritarrak izan genituen protagonista nagusiak eta kontzentrazioa isilean burutu zen. Gose greban diren euskal presoan alde egunero enkarteladak egingen dituzten Gestorak eta Senideakeko kideak kontzentrazioa gehitu ziren eta, era berean, ezker abertzaleko kideek "Bakea erakitzen Euskal Herriak du hitza eta erabakia" zioen pankarta erakutsi zuten.

siak eta kontzentrazioa isilean burutu zen. Gose greban diren euskal presoan alde egunero enkarteladak egingen dituzten Gestorak eta Senideakeko kideak kontzentrazioa gehitu ziren eta, era berean, ezker abertzaleko kideek "Bakea erakitzen Euskal Herriak du hitza eta erabakia" zioen pankarta erakutsi zuten.



Aintzindariak gas naturalaren erabileran

Bergarako bost enpresatako ordezkariak plaka oroigarri bana jaso zuten Josu Jon Imaz Industria sailburuaren eskutik, hain zuzen ere duela 15 bat urte NaturGas gas naturaleko sarera konektatu ziren Euskal Autonomi Erkidegoko lehenbiziko enpresak izan baitziren Bergarako Altos Hornos, Fegar industriak, Itesa, Marcos Laskurain eta TTT. Abenduaren 2an Udaltxeko Pleno aretoan egindako ekitaldian, Imaz sailburuarekin batera, Victoriano Gallastegi alkatea, Juan Andres Diez de Uzurrun Gas Euskadiko zuzendaria eta Jesus Maria Goiri EVEko zuzendaria izan ziren. Guztiek etorkizunean gasifikazioak izango duen garrantzia azpimarratu zuten. Esan bezala, Iñaki Garmendiak (Fegar-en izenean), Carlos Amilibiak (TTT), Paco Martinezek (Itesa), Marcos Laskurainek berak eta Marcelino Olanok (Altos Hornos) plaka bana jaso zuten.

Torrekuako makalen inausketa

Torrekuan dauden makal egoera txarrean zirela eta (hain zuzen ere makal-tako bat jausi zen), inausketa egin zen orain bi aste. Era berean, ordezkatzeko birlantaketari hasiera eman zitzaion, bertako makal beltzak eta haltzak sartuz eta gaur egungo makal kopurua mantenduz. Birlantatutako zuhaitzak handitzen direnean, gaur egungoak kentzen hasiko dira.

tzaion, bertako makal beltzak eta haltzak sartuz eta gaur egungo makal kopurua mantenduz. Birlantatutako zuhaitzak handitzen direnean, gaur egungoak kentzen hasiko dira.



Peque choll

Aurreztu %70a berria bezalaxe erosiz

Erropa (0-16 urte) • Haurdunendako erropa • Osagarriak • Mozorroak • Jostailuak • Liburuak • Bideoak • Kasetak...

Isasi 18, **EIBAR** 943 20 03 10

Umeendako gaien salerosketa

Saldu eta erosteko modurik onena

• EZ BOTA
• EZ GORDE
• EZ OPARITU
SALDU!

Berrigara

391 zenbakia.
1999ko abenduaren 17a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Tere Madinabeitia, Aintzane Irizar.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzatza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mariji Laskurain.

Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elikorobereziar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldie, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Benito Cantero.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BERGARAKO ETXEZ ETXKO LAGUNTZA

Idatzi honen bidez Bergaran etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duten langileen lan baldintzak salatu nahi ditugu. Momentu honetan zerbitzu hau subkontratatuta dago, nahiz eta gure ustez Udalak zuzenean eskaini beharreko zerbitzua izan, helburu soziala duen zerbitzua kalitatez eman ahal izateko. Ezin dugu ahaztu zerbitzu hau jasoko duten lagunak gizarte honetako ahulena direla.

Subkontratazioak, langileek egoera prekarioan lan egitea dakar eta lan sozial bat burutzen ari diren arren, euren lana ez da baloratzen, eta gure ustez helburu soziala duten zerbitzuetan Udalak ezin du errentabilitatea argumentu moduan erabili.

Pairatzen duten egoeraren adibide garbiena, euren lan harremanak arautzen dituen hitzarmenik ez izatea da, horren ondorioz eskubide minimoak ere ez zaizkielarik errespetatzen. Alde batetik, soldata oso baxua kobratzen dute, 700 PTA. neto ere ez. Bestetik, jardunaldi osoko kontratuak izan arren, ordu guztiak ez zaizkie errespetatzen zerbitzuaren be-

rezitasunak direla argudiatuz. Honek hil batetik bestera jardunaldi aldaketak edukitzea suposatzen du, posible delarik oso lanordu gutxirekin gertatzea. Nominan, noski, eginiko lan orduen arabera kobratzen da, honek dakarren ezegonkortasunarekin. Azkenik, lan egutegia edukitzea amets bat baino ez da.

Hauk adibide batzuk dira, gehiago sakondu ezkerro beste hainbat arazo aipatu ahal izango genituzke. Honela hainbat urte igaro ondoren eta oraingo enpresari, Lending Service, kontzesioa datorren urteko otsailean amaitzen zaionez, egoerari aurre egiteko ordua dela uste dugu. Udalak, kontzesioa amaitu baino lehen, kontrata berriak izango dituen baldintzak ipini behar ditu baldintza pleguetan.

Gauzak honela eta egoera hobetzeko asmoarekin, baldintza pleguetan sartzeko eskaera batzuk aurkeztu genituen Udalean, gehienbat ekonomikoki egoera hau hobetzen lagunduko luketen eskaerak.

Udalaren erantzun definitiboaren zain gauden arren, badirudi arrazoiz teknikoak argudiatuz, gure eskaerak ez direla

kontuan hartuak izango. Berrigara ere babes gabeko egoera batean aurkitzen garelarik.

Bestalde, enpresa ere ez dugu ardurarik gabe utzi nahiz, lana antolatzerako orduan bereaiek baitira gure kontratueta-ko jardunaldia errespetatu, zerbitzu bata eta bestearen artean dauden denbora galduak erregulatu e.a. egin behar dituztenak.

Bukatzeke, esan gure jarrerara guztiz irekia dela eta, prest gaudela etxez etxeko langileen lan baldintzak negoziatzeko. Ikusten ari gara borondate falta da. Aldeen artean negoziatzeko borondatea egon ezkerro, arazo teknikoak gainditu ditzakegula uste dugu.

Jarrera negoziatzaileerik eta egoerari irtenbidea bilatzeko asmorik ikusten ez badugu, mobilizazio dinamika batean sartzeko beste aukerarik ez dugu izango, gure helburua mobilizazio kanpaina batera iritsi baino lehen arazoa konpontzea izan arren.

Debagoieneko LAB

tira biraka: usoa mendikute


AURRERANTZEAN
GAUZAK HOBERA JOANGO
DIRA



€-AK, ALKOHOLISHOAREN
ARAZOARI AURRE
EGINGO DIO.



KALKULUAK EGIN BITARTEAN,
ALKOHOLAREN EFektUAK JOANGO
BAITZAIZKIGU.



■ atrebentzia ezpada


■ bai, esan!

Mende hau bukatzera doiala ta, jende asko da juatekua aurten kanpora Gabonetan. Zuk ze asmo daukazu?



Oli Dominguez

Asko gustatzen jataz Gabonak eta beti bezala etxian pasatuko ditut, familiarekin.




Daniel Valdepeñas

Errioxara juango naiz familiarekin. Baiña lagunekin be juango nitzake hortik zihar.



Pili Garzia

Umia egongo ez balitz, kanpora juango nitzake. Gustau egitten jat juatia, baiña beti dao zeoze, lana ez bada, beste gauza bat.



Jesus Manso

Etxian, familiarekin. Nik, edade honekin, ez neuke irtengo. Baiña gaztia izanezkeo, ba...



Ines Iturriaga

Ni juango nitzake leku bero batera, baiña gizona ez. Gabonetan, bestela, lan ugeri, dirua gastau eta inok eskerrik emun ez.



Manuel Moreno

Normalian etxian ospatzen dittugu familiarekin, baiña 2000. urtea dala eta, juango nitzake kanpora.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

DENDA KANPOKO LORONTZIAK

Edurne Sarasketa-ren deia jaso genuen duela egun batzuk. Edurnek Ibargarai kaleko Alga perfumerian lan egiten du eta denda aurrean apaingarri gisa jarritako lorontziak behin eta berri lapurtu izana salatu nahi du. Edurnek dioenez, gutxienez sei bat bider lapurtu izan dizkiote lorontziak eta lotsagarria iruditzen zaio hori egin dutenen jokaera. Orain lorontzi bakarra dauka, bestea ezezagun batzuk eruan zutelako. Bolintxo kirol dendakoekin beste horrenbeste gertatu izan ei da eta apurketak ere sarri egin ei dituzte. Horrelako ekintzak Bergaran jaiegunak izan direnetan egin dira kasu gehienetan.

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

MARGA
jantzidenda

San Pedro 20. Bergara.
Tf. 943 76 05 37

Zatoz Gabonetako eskaintzak ezagutzera. Prezio eta kalitate onenean denboraldiko erropak.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!!

CARLOS BELTRAN DE GUEVARA BEREZIBAR Dr.

—Laneko ezintasunak.
Gaixotasun arrunta edo laneko istripuak
—Gorputz kaltearen balorapena: trafiko eta bestelako istripuak

CMU ZENTRU MEDIKOA
UDALAITZ

FERRERIAS 56. **ARRASATE**. TF. 943 79 44 22

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

2000 efektua

Azken hilabeteotan zeresan ugari eman du "2000 efektua" delakoak. Arazo honek zerikusia du 1960ko hamarkadan eman zen informatikaren hasierarekin. Memoria oso garestia zenez, garai hartako programatzaileek, kostoak aurreztearren, besteak beste, kodigoak laburtzen zituzten eta horrela urteak azken bi zifrekin definitzen zituzten. Ordenagailuek CMOS izeneko memoria daukate plaka basean eta hor mendeari dagozkion zenbakiak (19a gaur egun) grabatuta daude. Plaka basean BIOS izeneko beste programa bat dago eta honek CMOSetik eta RTCtik (Real Time Clock) jasotzen du informazioa fetxa osatzeko, RTC delakoan orduak, minutuak eta urtearen azken bi zifrak agertzen baitira.

Orain, 2000. urtearen atarian, BIOS zaharrek urte berria interpretatzeko gai izango ote diren kezka dago. Kasurik larrienean, BIOSak baliogabeko zenbaitzat interpretatuko ditu urte berriaren bi azken zenbakiak (00) eta orduan sis-



AITOR ETXEBERRIA

Informatikoa

"2000. urtearen atarian, BIOS zaharrak urte berria interpretatzeko gai izango ote diren kezka zabaldua dago"

tema blokeatzeko arriskua egongo litzateke. Nagusiki, gehien informatizatuta dauden sektoreengan eragina izan dezake "2000 efektua" eta, beraz, banketxeek, aseguru etxeek, enpresa elektrikoek edota hegazkinek arazoak izan ditzakete. Etxeko aparailuei dagokienez, gutxi dira erlojua erabiltzen duten elektrogailuak eta arraroa izango da aberiaren bat izatea.

Dena den, gehiegi aipatu ez den arazo bat ere tartean dago, 2000. urtea bisusturtea dela

hain zuzen ere. 100 zenbakiarekin zatigarriak diren urteak ez dira bisusturteak izaten, baina salbuespena 400ekin zatigarriak diren urteak dira eta, beraz, datorren urtea bisusturtea dugu. Ez dakit kontabilitate programek otsailak 29 egun izango dituela kontuan izango duten.

Edozein modutan ere, 2000. urtearen sarreran inolako arazorik ez izateko BIOSa, sistema operatiboa eta erabiltzen diren programak eguneratzea gomendatzen da.<



2000 efektuak gehien informatizatuta dauden sektoreengan eragina izan dezake.

BIZTANLEAK. ZENBAIT BEHARTSU

Imanol Sorondo

Zenbat biztanle zeuzkan Bergarak lehengo denboretan ez da erraza jakitea: "lehengo denborak" esaten denean urte eta gizaldi asko dira. Gaur ipini-ko ditugunak 1768. urtekoak dira eta Santamainako artxiboan daude, abade maisu zen Rafael Garitano-Aldaetaren eskutik. Agian, gehiagotan aurkitu litezke horrelako datuak elizako artxiboetan herrikoetan baino; ez da ahaztu behar norberaren guraso zaharren zerrenda parroketako liburuetan aurki daitekeela, aspalditik jaso baitzituzten bataiatutakoan, ezkonduen eta hildakoen izenak. Beste alde batetik, kontuan hartu behar dugu Angiozar eta Ubera oraindik ez zirela Bergarakoak.

Hona gure abade maisuak zenbatutakoak; Oxirondoko Santamaina parrokiak 1768. urtean zeuzkanak hauek dira: 1.885 biztanle, 903 gizon-zeukoak eta 982 emakumezkoak. Santamainan 200 baserri inguru zeuden eta gehienak baserritarak ziren. Osintxun 260 inguru bizi ziren 32 etxetan; baina horiek Santamainako eliztarren artean zenbatuak zeuden, parrokia horretakoak baitziren orduan. San Pedro parrokiak 1.500 inguru zeuzkan. Elosu ere parrokia zen, baina On Rafaelek ez digu auzo honen zenbakirik ematen; kontuan hartzen badugu baserri batzuk Azkoitia-koak direla, ipini ditzagun 140 biztanle. Bergarak, denera, 3.440 inguru izango zituen.

On Rafaelek behartsuak ere ba-zeudela bere parrokian idatzi zuten, eta egin zitzaizen funerala ordaintzeko dirurik ez zutenen zerrenda ipini hitz hauekin: "txiro bezala lur eman zioten", "ez zeukan zerekin ordaindurik", eta "zeharo pobrea". Hilan liburuan aurki daiteke behartsuen zerrenda:

Urtea	Hilak	Behartsuak	%
1776	27	2	7,40
1777	33	3	9,09
1778	30	4	13,13
1779	36	7	19,14
1780	33	4	12,12



Nafarroako produktuen azoka

Gure Ametsa elkarteak antolatuta, Nafarroako produktuen azoka izan zen **San Antonion** joan zen zapatuan. Bertan, pateea, txorizoa, ezti, Erronkariko gazta etabar izan ziren salgai, eta jende mordoxka bildu zen, aukera aprobetxatu eta erosketa batzuk egitera.



Euskararen eguna Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundia Ikastolako ikasleek **Euskararen Eguna** ospatu zuten joan zen **abenduaren 3an** ikastetxean bertan. Euskararen aldeko manifestu batekin emari zitzaien hasiera ekitaldiei; hainbat bertso eta euskal kanta abestu ondoren, berri kirolak jokatu ziren ikasleen artean.

Diapositiba emanaldia Udal Euskaltegian

Hilaren 1ean, eguaztena, **Joxe Ramon Agirre "Marron"** mendizale ataundarra **Udal Euskaltegian** egon zen **"Nepal: ene erraietara"** diapositiba-muntaia ikusgarria eskaintzen. Hainbat emanaldi egin zituen egunean zehar, eta benetan harrিতuta laga zituen bertan izan ziren guztiak, bai muntaiaren ikusgarritasunagatik eta bai ondoren kontatu zituenengatik. Nepalen zehar ibili denetan ikusi eta ikasi dituenekin gozatzeko aukera ederra izan zuten Udal Euskaltegian!



PILI GISASOLA



Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83



multimedia eta animazioa diseinu grafikoa
internet web diseinu industrial ofimatika
photoshop maketazioa infografia 3D

Zure ikasketa zentru berria

Matrikula zabalik!

Irakasle bat taldeko ikasleko ordenadore bana

Matrikula zabalik!

Aula XXI, Mintegi kalea, 5 (tokieder) 20570 BERGARA

943-76 59 20

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

Zatoz Olentzero ospatzera San Martin herri ikastetxekoekin



OLENTZERO EGUNA
abenduaren 24a

Irteera:

11:00etan eskolatik

Ibilbidea:


Poligonoa-Frontoia-Simon
Arrieta-San Martin plaza

ZORIONAK!

Guraso, ikasle eta gainerako guztioi
bejondeigula.
Denon artean osatzen dugu San Martin,
gure eskola.

*Izan dezagula:
pakea, osasuna,
lana, maitasuna
eta umore ona.*

Doinua: "Gabon gabian"



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

B. Laskurain 25
Tf. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 BERGARA

Urte zaharreko mahatsa



Gabonak familia giroan igarotzen ditugu euskaldun gehienok, oso tradizionalak garela-ko gai horri dagokionez. Beraz, Urte Zahar gaueko mahats-aleak etxean jango ditugu familia eta lagunez inguraturata. Baina askori ez zaio familia arteko giro hori gehiegi gustatzen eta Gabonetan etxetik alde egitea gustatzen zaio. Horixe, da, hain zuzen ere, Idoia Ilarduari gertatzen zaiona: "Fetxa horrek

ez jataz bape gustatzen eta nahixago dot etxetik kanpo egon, familixatik urrun". Ez da, ordea, Idoiak Gabonetan kanpora joateko duen arrazoi bakarra: "Udan ez dot eduki oporrik eta orain hiru aste dauzkat. Akordau be ez naiz egitten oporrak izandako azkenengo aldixakin eta orain aprobetxatu nahi dot".

Aurten, gainera, gertakari berezi bat ere erabil zitekeen Gabonak kanpoan igarotzeko aitzaki gisa. Izan ere, eta kallean dabilen hasiera horren data zalantzaz jartzen duen polemika alde batera utzita, abenduaren 31ko gaueko 12ak jotzean, beste urte bat hasteaz gain, mende berria eta milurteko berria ere hasiko da.

Ba al duzu plan berezirik 2000. urteari ongietorria emateko? Euskaldunak oso tradizionalak omen gara eta fetxa berezi hauek familia artean igaroko ditugu gehienok. Baina badira egun berezi hauek batere gustoko ez dituztenak eta kanpora joatea nahiago dutenak. Horietako bat da Idoia Ilarduia eta guk agentziaz agentzia lagundu diogu egun horietan egiteko bidaia egoki baten bila.

non?

Bergarar asko joango da urteko azken eguna kanpoan ospatzera

Gertakari hori, jendeak ezezik, bidai-agentziek ere kontuan hartu dute eta beste urteetako Gabonetako eskaintzez gain, aurten eskaintza berezi mordoa ere kaleratu dituzte. Prezioak igotzeko ere balio izan diete mende eta milurtekoaren hasieraren kontu honek.

TOKIRIK EZ

Egia da 2000. urtearen etorrerak jende-ari kanpora joateko gogoia eman diola eta bidai-agentziek, horretaz jabeturik, fetxa hauetarako aurreko urteetan kaleratu dituzten eskaintzak gehitu egin dituztela. Baina azkenean, urte amaierarako bi aste eskas falta direnean, gure ingurukoek etxean gelditzea erabaki dute. Zergatik?

Urte Zahar Gaueko mahats-aleak eta txanpaina Bergaratik kanpo hartuko dute aurten batzuek. New York da ospakizun horretarako hautatu duten tokietako bat.



Idoia Ilarduia da Gabon giroa gustatzen ez zaienetako bergarar bat. Horregatik, eta aspaldian oporrak hartu ez dituelako, erabaki du egun horiek herritik kanpo igarotzea.

Alde batetik, euskaldunak bezain tradizionalak ez diren beste herrietakoek atera diren eskaintza gehienak bete egin dituztelako eta, bestetik, bidaia eta egonaldi guztiak asko garestitu direlako.

Idoiak badu zer kontatu toki-falta horren inguruan: "Neretako 2000 urtiaren kontu hori kalterako izan da, problemak eduki ditudalako tokixa billatzeko. Nik hasieran Tunezera jun nahi neban eta ezin izan dot lortu eta, azke-

nian, dana aldatu eta New Yorkera juango naiz".

PREZIO ALTUAK

Baina ez pentsa New Yorkerako bidaia lortzea gauza erraza izan denik. Agentziaz agentzia ibili behar izan du Idoiak nahi zituen fetxetarako azkenik nahiko merke atera zaion abioi txartela eskuratzeko: 70.000 pezeta ordainduko du joan-etorriko hegaldia, abenduaren 24an irten eta urtarilaren 2an itzulita. Egonaldia, berriz, oraindik zehazteke dauka, baina oso argi du bere kontura kontratatuko duela: "Zeoz merkea billatuko dot, alberge bat edo. Agentzietan galdeztzen ibilli naiz eta, egixa esan,

erreza da New Yorken Gabon Gaua eta Urte Zahar Gaua pasatzeko tokixa bilatzia. Baina pakete osua hartu behar dozu, hau da, bidaia eta hotela. Eta pakete honetan Gabonetako Gala edo Urte Zaharreko Gala sartzen dira eta hola kontuekin asko garestitzen da. Gainera, nik hemendik alde egingo dot horrelakuak ez egitteko".

ESKAITZA BEREZIAK

Herriko bidai-agentziak ere bat datoz Idoiak izan dituen arazoak aipatzera-koan. Lehenik, bergarrek egun haue-
tan geroz eta gehiago irtetzen dutela adierazten dute, normalean abenduaren 25etik aurrera joaten direla zehaztuz. Urtea amaitzeko bi aste falta direla, erreserba ugari dituzte eta oraindik horretan jarraitzen dute. Erreserba horiek eskiatzera joateko (Alpeetara, Andorra eta Baqueira Beretera), Kanariar Irletarako, Tunezerako eta Europako hiri-buruetarako dira nagusiki. Eta geroz



eta toki gutxiago geratzen da toki hauetan, batez ere eski-estazioetan, Tunezen eta Kanariar Irletan. Arazo horri, gainera, prezioen igoerarena ere gehitu behar zaio. Kanariar Irletara joatea, esaterako, urteko beste sasoi batean baino bi aldiz garestiago da. Dena den, azken egun hauetan prezioak zerbait jaisten ari direla ikusi dute. Beraz, azkeneko momentuan horrelako tokiren batera joan nahi duenak merkeago topa ditzake bidaiak, topatzen baditu, noski.

Bestelako eskaintzak ere jaso egin dituzte bidai-agentzietatik: Karibe, Sudafrica, Bali, Egipto, Jordania... Hortaz, gehien eskatzen diren tokietara joatea garestia bada, beste toki hauetara joatea oraindik garestiagoa da.

Mende eta milurteko berriaren aitzakiarekin, bidai-agentzietatik urte amaierarako eskaintzen dituzten bidaien prezioak asko igo dira.

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



Amillaga, gasolindegiko ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

**Ganbara
TABERNA**

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



Gabonak
Bergaran igaroko
dituztenek izango
dute zer egin
egun horietan
ekitald ugari
antolatu delako

URTEA AMAITZEKO PROPOSAMENAK

Baina urtea amaitzeko orain arte aipatutako toki edo destino hauetaz gain, hiru proposamen gehiago egin behar ditugu lerro hauen bitartez. Esaterako, zergatik ez Zelanda Berritik gertu dauden Fiji irletara joan? Han elkartuko direnak izango omen dira urte berriari

ongietorria emango dioten Munduko lehenak, baina paraje horiek dagoeneko jendez gainezka daude eta oso zaila izango da lekuri aurkitzea. Bigarren proposamena gertuago dagoen Egiptorako da, Keops faraoiari eskainitako piramidearen inguruan Jean Michel Jarek 2000. urteari ongietorria emateko

eskainiko duen kontzertu erraldoira joateko. Azkenik, London aukeratu dugu, Big Ben dorretik gertu eraikitzen amaitzen ari den Milurtekoaren Kupula bisitatzera joateko.

Idoia Ilarduia aukeratu duena ere, New York, oso egokia omen da urtearen amaiera ospatzeko, Times Square izeneko plazan inoiz baino jaialdi handiagoa egingo delako aurten. Ez daki gu mahats-aleak hartuta hurbilduko den bertara edo han bilduko den jendetatik ihes egingo duen. Hori bai, badi Gabonetarako Rockefeller Center izeneko plazan jartzen den izotz-pistara joan eta patinen gainean pirueta batzuk egiteko asmoa.

Aukeratzen den tokia aukeratuta, kontuan izan egun hauetarako bidaiak garestiak direla, azken egunetan prezioz jaisten hasi badira ere, eta toki askotan plazarik ez dagoela dagoeneko.

Baina lehen esan dugun bezala, euskaldunak oso tradizionalak gara eta fetxa hauetan hemen geratuko garen gehiengo hori osatzen dugunok ere ondo pasatuko dugu Urte Zahar Gaua etxean edo kalean ospatuz.<

Am.Ma

ERROPAK • DINETAKOAK • MARKA ONENAK

ZABALDU BERRIA

DESIGUAL
AUTUMN/WINTER '99-'00

GIZBO

ETA BESTE MARKA ON ASKO

San Pedro 10 Bergara. 943 76 07 47

Bergarako Athletic Club peña aurkeztu zen martitzenean

Zuri-gorrien jarraitzaileen lagunartekak 91 bazkide ditu

Martitzenean aurkeztu zen Bergarako Athletic Club lagunartea. 91 bazkidez osatutako peña berriaren helburu nagusia talde zuri-gorriaren herriko jarraitzaileak biltzea da. Horretarako, topaleku baten bila dabiltza, elkarte, taberna edo dena delakoa. Horretaz gain, urtean, gutxienez, zuri-gorrien bi partidu zuzenean ikustera joateko asmoa azaldu dute peñakideek.

Aurkezpen ekitaldia San Juango Tartufo jatetxean egin zen martitzen iluntzean. Bertan, lagunarteko bazkideak eta Athleticen beste hainbat jarraitzaile bildu ziren: 100 bat lagun guztira. Lagunartekoen asmoa, Athleticen jokariak eta zuzendaritza taldeko kideak ekartzea zen, baina zuri-gorriek eguaztenean Rayoren kontrako Kopako partidua zutela eta, ezin izan zen inor bertaratu. Halere, ez zen falta izan Athleticen



Koldo Agirre eta Fermin Hernandez peñako presidentea.

ordezkaririk: Koldo Agirre eta Jose Mari Argoitia, garai batean jokalarri zuri-gorriak izandakoak eta egun talde gazteen entrenatzaileak direnak, Bergaran izan ziren.

Aurkezpen ekitaldi ofizialaren aurretik, beste ekitalditxo bat izan zen Toki-Ona bodegoian. Zuri-gorrien partiduak ikusteko he-

rriko hainbat Athleticzale bertan bildu izan direla eta lagunartekoen sorreraren lehen urratsak bertan eman direla betirako jasota gera dadin, plaka oroigarri bat azaldu zuen Ander Zangitu gaztetxoak.

Tartufoko ekitaldiari hasiera emateko, fandangoa eta arin-arina dantzatu zi-

tuzten herriko bi bikote gaztetxok. Ondoren, hainbat plaka oroigarri banatu ziren: Bergarako Athletic Club lagunartekak Athletic Club taldeari eta alderantziz, eta Bergarako Athletic Club lagunartekak Athleticen lagunarteen elkarteari eta alderantziz. Horretaz gain, Real Madridenteko Peña Mahoneroak eta Arrasateko Imanol Etxeberria lagunartekak plaka oroigarri bana eman zioten Bergarako Athletic Club taldeari. Bestalde, Victoria-no Gallastegi alkateak, bere izenean, beste plaka oroigarri bat bidali zuen peña berriarentzat, baina ez zen aurkezpen ekitaldian izan. Esan behar da, azkenik, Bergarako Athletic Club lagunartekak ohorezko bazkide txartela atera duela Imanol Etxeberriaren izenean, Bergaran jaiotakoa baita. Txarteloa Athleticen atezainaren lehengusinari, Amagoia Azkarate antzuolarrari, eman zion Bergarako Athletic Club lagunarteko kide batek.



Gazte lokalaren aldeko futbito txapelketa bihar

Gazte lokalaren aldeko plataformak antolatuta, 12 orduko futbito txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Seminarioan. Parte hartzen duen talde kopuruaren arabera zehaztuko dira biharko partiduen egutegia eta ordutegia. Emakumeek ere parte hartu ahal izango dute, eta talde mixtoak osatzeko aukera dago. Goizeko 9etan hasiko da txapelketa, eta kanporatze sistemarekin jokatuko da, partidu bakarrera. Finala iluntzean izango da. Izen-emateak 4.000 pezeta balio du. Irabazleak bildutakoaren %75 jasoko du,

Euskadiko karate txapelketa

Bihar, zapatua, kadete eta junior mailako Euskadiko karate txapelketa jokatu da Labe-garaietako Kiroldegian 16:30etatik aurrera. 150 neska-mutil inguruk hartuko dute parte, tartean Mikel Arakistain bergarra izango delarik.

Pilotalekuen erreserbak

Datorren urtean Zabalotegi, Angiozar, Osintxu eta Elorregiko pilotalekuetan orduak erreserbatzeko eskaerak abenduaren 28ra arte jasoko dira Kirol Zerbitzuan. Beharrezkoa baltiz, hilaren 29an, 13etan zozketa izango da.

BKEko pilotariak

Unai Idiakezek 22 eta 12 irabazi zion Ze-laiari domekan Tolosan, Gipuzkoako klubaren arteko lehen mailako seniorren finalean. Ander Muguruza, berriz, ezin izan zen DV-ETB txapelketako finalerako sailkatu, Arrietarekin batera, Del Rey eta Urdanizen aurka galdu ondoren.

Bergarar gimnastak fin Espainiako Txapelketan

Bergarako lau gimnastek abenduaren 5etik 8ra bitartean Valladoliden jokatu-tako Espainiako Txapelketan hartu zuten parte, Eibar-ko Ipurua taldea ordezkatu-tuz. Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua bigarren postuan geratu ziren jubentzen sailkapenean. Era berean, aparatuen finalean ere bigarrenak izan genituen eta zilarrezko domina eskuratu zuten. Jaione eta Ane Miren uztaiak eta mazak aparailuekin aritu ziren eta maila bikaina azaldu zuten bere taldeekin batera.

Bestalde, juniorretan, Leire Lasa eta Aintzane Narbaez sailkapen orokorreko zazpigarren tokian sailkatu ziren. Aparatuetan, zintekin egindako saioan, bosgarren postua eskuratu zuten.

Kategoria bakoitzean 33 talde izan ziren lehian txapelketaren 25. edizioan eta Ipurua taldeak bigarren postua lortu zuen. Ipurua taldera joan aurretik, bergararrak Ariznoa taldean aritu izan dira Helena Herrerosen aginduetara. Orain, Tania Nagornaya eta Susana Prieto dira euren entrenatzaileak.



Zutik Aintzane eta Jaione Igartua. Behean, Ane Miren eta Leire.

Kadete futbol taldea Realari 5 eta 0 nagusitu

Bergara K.E.ko ohorezko kadete futbol taldea 5-0ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Real Sociedad taldeari zapatuan Ipintzan jokatu-tako partiduan. Fernando Oregiren mutilek partidu borobila jokatu zuten, Ipintzan bildutako ikusleen gozamenerako. Atsedena-

dian, mahoneroak gol bateko abantailarekin joan ziren aldageletara. Alatz Egañak (bi gol), Imanol Cabanillasek, Unai Agirrek eta Imanol Erañak egin zituzten etxekoen golak. Astebukarra honetan Eibarren bisita jasoko dute, domekan goizeko 11etan Ipintzan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Eibartarrak B
Bigarren mailako jubentzen
Zapatua. 15:30. Ipintza
Bergara-Aloña Mendi
Lehen mailako kadetea
Zapatua. 17:15. Ipintza
Bergara-Eibar
Ohorezko kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Almen
Kadete mutilak
Zapatua. 12:00. Kiroldegia
Bergara-Legazpi
Kadete neskak
Domeka. 10:30. Kiroldegia
Bergara-Donibane
Jubentzen mutilak
Domeka. 12:15. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Ingenieros
Senior neskak
Zapatua. 16:00. Mariaren Lagundia

Bergara-Aldapeta

Junior mutilak
Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Olaederra
Senior mutilak
Eguakitza. 22:30. Kiroldegia

PILOTA

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Bergara-Intxaurren
Lehen mailako afizionatuak

Bergara-Aretxabaleta
Kadeteak

Gaur, eguakitza, 19:30etan

Angiozarko pilotalekuan

PROFESIONALAK

• **Tirapu-Zearra/**

Berasaluzte VIII.a-Rai

• **Agirre-Arretxe/**

Ariznabarreta-Errasti

• **Pascual-Taberna**

Bihar, zapatua, 16:30etan

Udal Pilotalekuan

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreaka 13 behea ☎ 943 76 55 00



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK



Gurutzne Elkoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Buya-Ortzi Angiozar	Agiñaspi
17:00: Torrekua-Agiñaspi	Soropotroak
18:00: A Ze Flaxa-Soropotroak	Vacalouras
19:00: Vacalouras-Ion Autoak	Artusamak
20:00: Artusamak-Aterpe	Ion Autoak

DOMEKAN KANPOAN

09:00: Etengabe-Moskis	Mo(ko)lotov
10:00: Mo(ko)lotov-Irubide	Eri
11:00: Pagomendi-Eri	P. Bergara
12:00: Pinturas Bergara-Azpeitxi	Pagomendi
16:00: La Juve-Ari Ari	Patxaran Team
17:00: Urrutxurtu-Patxaran Team	Tom Cat
18:00: Tom Cat-Amoskibar II	Bildurbarek
19:00: Mongatxurra-Bildurbarek	Tom Cat

EMAITZAK

A MULTZOA

Moskis-Ari Ari	4-1
----------------	------------

B MULTZOA

Urrutxurtu-Agirrebeña jatetxea	2-2
Tom Cat Argandolas-Patxaran Team	2-3
Bayer-Amilotx	4-1
Mongatxurra-Amoskibar	0-3

C MULTZOA

Shaktale-Vacalouras	4-0
Buya-Agiñazpi	3-10

D MULTZOA

Ufala-Artusamak	0-3
FAC-Guadalest	4-1
Xurruapak-Bar Canalejas	4-7
Errotagain-Komando Piperrak	13-0

GORA ETA BEHERA



Shaktale, Moskis eta FAC

Shaktale erraz nagusitu zitzaion sailkapenean bere atzetik zegoen Vacalourasi. Moskis eta Fac taldeek emaitza berdinarekin menderatu zituzten Ari Ari eta Guadalest: 4-1.



Mongatxurra eta Ufala

Ez ziren euren partiduetara aurkeztu eta beraz antolaketa 0-3 emaitzarekin galdutzat eman zizkien partiduetan. Bi taldeei hiru puntu kendu zaizkie. Ufalak beste hiru puntuak zigorra jaso du arbitratzera ere ez azaltzeagatik.

ARGI! Gabonetan atsedena

Gabonetako oporren ostean, txapelketa urtariraren 8an jarriko da berriz martxan. Bestalde, Jose Ramon Diazek partidu bateko zigorra jasan du eta antolaketa aktak izendituekin osatu behar direla gogorarazten du.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	27	9
2. Azpeitxi jatetxea	21	9
3. Irubide jatetxea	19	9
4. Sirimiri Eri	19	9
5. Pinturas Bergara	9	9
6. Moskis	9	9
7. Ari Ari	7	9
8. Mo(ko)lotov	7	9
9. La Juve	6	9
10. Etengabe	6	9

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	22	8
2. Ortzi	21	9
3. Uve Bikoitza	19	9
4. Shaktale	16	9
5. Agiñazpi	12	9
6. Vacalouras	11	9
7. Buya	10	9
8. Soropotroak	6	8
9. Ion Autoak	6	9
10. Torrekua	3	9

B multzoa

	P	J
1. Bayer	20	9
2. Amoskibar	19	9
3. Urrutxurtu	17	9
4. Bildurbarek Opel Lam	16	9
5. Mongatxurra	15	9
6. Patxaran Team	11	9
7. Agirrebeña Jatetxea	10	9
8. Tom Cat Argandolas	9	9
9. Amilotx	6	9
10. Patatus	0	9

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	25	9
2. Bar Canalejas	21	9
3. Artusamak	19	9
4. FAC	17	9
5. Guadalest	16	9
6. Xurruapak	12	9
7. Txipiron	10	9
8. Aterpe	4	9
9. Komando Piperrak	1	9
10. Ufala	-2	9


Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49


Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

■ mahoneroak



LAURI ASKARGORTA
Bergarako 2. entrenatzailea

Azken minutuan jasotako golaren ondorioz, ezin izan genuen garaipena eskuratu zapatuan San Pedoren aurka. Bi taldeen jokoa ikusita, emaitza justoa izan zela uste dut baina azken minutuan gola jasotzek min asko egiten du eta alde horretatik behintzat ez genuen zorterik izan. Aukera paregabea galdu genuen hiru puntuak lortzeko.

Bigarren zatian batez ere sestaotarrak izan ziren balaioaren jabe baina ez zuten gol aukerarik sortzen. Gu, berriz, lortutako abantailari eusten saiatu ginen eta taldea ondo aritu zen defentsan eta erasoan ere izan genuen aukera bat edo beste. Hala ere, golen bat jasotzeko arriskua hor zegoen eta zoritxarrez hori gertatu zen.

Astebukaeran Ondarrun jokatuko dugu eta Gabonetako oporrak lasaia go disfrutatzen ea puntuatzerik lortzen dugun. Ondarrutarrak gure aurretik dira sailkapenean, hiru puntutara, eta partidu borrokatua izango da.

Otsein Saria

San Pedoren aurkako partiduan etxekoan aldetik honako hauek nabarmendu ditugu:

Jokin Mendaratz . . . 3 puntu
Etor Laskurain 2 puntu
Arkaitz Arana Puntu 1

Etxeko partiduetan bakarrik hartzen dira kontuan.

■ kronika: areto futboleko senior neskak

Joku ona eta garaipena

BERGARA 3

LARRAMENDI 1

1999-XII-13, 12:30.

Kiroldegia

Bergara: Leire Gonzalez, Oihana Iñurrategi, Ane Alberdi, Estitxu Lobato, Eider Goikoetxea -hasierako boskotea- eta Haizea Bolinaga.

Golak: 1-0. Estitxu Lobato. 2-1. Oihana Iñurrategi. 3-1. Eider Goikoetxea.



Argazkian, domekan jokatu zuen taldea Mikel Fernandez "Pope" entrenatzailearekin.

Bergarako areto futboleko nesken taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen domekan Larramendi taldearen aurka. Donostiarrek Mikel Fernandez "Pope" k entrenatzen duen taldea kopako finaletik kanpo utzi

zuten joan zen denboraldian eta jokalaririk bergararrak "mendekua" hartzeko gogoz zeuden. Eta gauzak primeran ateratu ziren, Bergarak denboraldiko partidurik onena jokatu baitzuen domekan. Donostian jokaturiko joaneko partiduan 4-3ko

emaitzarekin galdu zuten bergararrek, baina domekan euren benetako neurria azaldu zuten, uste baino garaipen errazagoa lortuz. "Pope" k agindutako errota-zioek emaitza ezinhobe eman zioten eta Estitxu Lobatok egindako golari es-

ker, mahoneroak aurretik jarri ziren markagailuan. Hala ere, donostiarrek berdinketaren gola lortu zuten atsedenaldiraren aurretik.

Bigarren zatian, etxekoek beraien jokoari eutsi zioten eta, baloia ondo mugituz, jokaldi onak egin zituzten, donostiarrak menderatuz eta gol aukera gehiago sortuz. Oihana Iñurrategi eta Eider Goikoetxeak egindako goleak azken emaitza jarri zuten markagailuan. Talde osoak lan bikaina egin bazuen ere, nabarmentzekoa da Eider Goikoetxeak jokaturiko partidua. Bere hanketatik etorri ziren jokaldirik onenak.

Partidu amaieran, jokalariek azken asteotan gaixorik dagoen Rachael Olabarria taldekideari eskaini nahi izan zioten lortutako garaipena. Domekakoa Bergarak lortzen duen hirugarren garaipena izan zen. Beste lau partidua galdu eta gainontzekoa berdindu egin dute. Entrenatzaileak faltan botatzen du taldean jokalaririk gehiago ez izatea eta, beraz, jokatzekeo interesaturik daudenek berarengana jo dezakete.

IKER MURUAMENDIARAZ / Pilotaria

"Profesionaletan aritzeko ametsa bete da"

Iker Muruamendi araz 22 urteko pilotaria profesionalen artean arituko da hurrengo urtean, martitzenean Aspe enpresarekin hiru urteko kontratua sinatu ondoren.

G. Zela izan dira profesionalentara pasatzeko negoziazioak?

E. Jokin Etxanizek Aspeko ordezkariekin

berba egin zuen eta biltzeko geratu ginen. Martitzenean Aspeko ordezkariekin izan



nintzen Eibarren eta berehala heldu ginen akordio batera.

G. Eskaintza bakarra Asperena izan da?

E. Bai, Aspe izan da ni fitxatzeko interesa agertu duena. Jo-

an zen urtean, mundiala irabazi eta gero, baneukan profesionalentara pasatzeko ilusioa eta pena hartu nuen gauzatu ez zelako. Dena dela, inoiz ez da berandu eta nire ametsa bete da.

G. Debuta noizko?

E. Ez dugu fetxaririk jarri. Lehenbizi, hilaren

26an, DV-ETB txapelketako finala jokatu behar dut Arrasaten eta jarraian Zaldibarren, Lezaman eta Mungian txapelketak ditut. Bergaran edo Antzuolan debutatu nahi nuke.

G. Zein asmo hurrengo urterako?

E. Lehen urtea zaila izango da, saltoa igarriko delako. Ahal duan guztia ikasten saiatuko naiz hobetzeko eta piskanaka izen bat izateko. Hobe helbururik ez jartzea, ikusiko dugu zer moduz moldatzen naizen.

G. Alboan lagunak dituzu...

E. Bai, Etxaniz, Elkorro, Zezeaga, Oregi anaiak eta Berraondo hor dira. Maisu onak dauzkat eta Bergara K.E.ri ere eskerrak eman nahi dizkiot.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai. Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurren pisua salgai. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Antzuolan pisua salgai. Deitu 943 76 65 65 telefonora.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. Deitu 943 76 03 31 telefonora.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Fran).

Irakasle batek pisua alokairuan hartuko luke. 943 76 22 77.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 50 77 (Manu).

ETXE KONPARTITUAK

Pertsona behar da pisua osatzeko Bergaran. Deitu 943 74 44 44 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekuan garajea salgai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/39 49 78.

ERRENTAN EMATEKO

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m². Deitu 943 76 28 09 telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. Deitu 943 76 62 63 telefonora.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Uberan, biltegitirako aproposa. 80 m². 943 76 30 84.

4. LANA

ESKAINTZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsaldez. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein laneta-

rako gertu. 943 76 00 24.

Emakumea goizean egiteko prest. 607 326 706.

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Etxeak orduka edo atariak. 943 76 13 46.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. 943 76 54 20 (Nerea).

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzailak gaixoak edo zaharrak zainduko nituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

ESKAERAK

Neska behar da: haurrak zaindu eta etxeak lanak. 943 76 04 64.

Etxeko lanak egiteko neska, 9:00etatik 14:00-etara. 943 76 01 80.

Emakumea behar da: bi haur zaindu eta etxeak lanak. 943 76 19 16.

Etxeko lanak egiteko

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU
Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Arantza
Erlojutegia
Barrenkalea 4
943 76 10 04

Gallastegi
Jostundegia
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 943 76 10 85

emakumea behar da.
943 76 31 11.

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 51 87.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Majisteritzan diplomatuak OHOKo klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Kimikan lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 42 08.

Kitarra. 943 76 45 73.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak. 943 76 21 09.

Solfeto eta piano klaseak. 943 76 72 69.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHOKo klaseak arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Suzuki GS 500 E motorra. 943 76 31 52.

Seat Ibiza (SS-AB) kotxea. 943 76 00 69.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauze).

Opel Corsa GT kotxea salgai. 943 76 43 80.

Ford Escort 1.300 egogera onean. 150.000 pezetan. 943 76 05 62.

Golf GTI kotxea (SS-AG) salgai. Kolore zuria eta lau ate. 943 76 13 18.

Opel Ascona 2.000 i (SS-X). 943 76 41 14 (gauze).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Fiat Ducato furgoneta. 3 urte, 1.600 kiloko kapazitatea. 943 76 09 12.

7. ANIMALIAK

SALDU

Urtebeteko artzain txakurra. 943 85 00 21.

BESTELAKOAK

Hiru txakur ar eta emebat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

8. DENETARIK

SALDU

Petrolioeko estufa berria. 943 76 59 68.

Butanozko sukaldea salgai. 943 76 46 14.

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Apalak. 943 76 25 79.

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. Berri-berria, 10.000 PTA. 943 76 55 63.

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Airwalk snowboarda eta fijazioak. 943 76 45 07.

Chaman piragua, txalekoa, pala eta kotxeko barrak. 943 77 01 74 (Felix).

Kerosenoeko estufa ia berria. 943 76 01 99.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi baffle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

EROSI

16 mm.ko zine proiektorea erosiko nuke. 943 76 58 37.

Bizikleta-rodillo finkoa erosiko nuke. 943 75 23 79 (Ana).

HARTU

Sukalderako armarua behar dugu. 943 76 11 98.

Berogailuak behar dira familia batzuekiko, butanozkoak nahiz elektrikoak. 943 76 72 77 (Caritas).

GALDU

Trango forro polarra Matxiategin. 943 76 51 66.

Urrezko pultsera. "Juli. 5-12-70/5-12-95" inskripzioa. 943 76 58 71.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

OBRAKO ARDURADUNA
Durangaldea. 25140/9

KOMERTZIALA
Bilbo. 26214/4

ILEAPAINZAILERA
Bilbo. 26306/2

**ELEKTRONIKA
TEKNIKARIA**
Ezkerraldea. 26455/2

BIZARKENTZAILERA
Goierri. 26486/3

**ZURAREN MEKANIZAZIO-
RAKO LANGILEAK, 5**
Urola. 26500/2

ILEAPAINZAILERA
Bilbo. 26578/1

ALTZARI DENDARIA
Ezkerraldea. 26586/1

**INFORMATIKAN
LIZENTZIATUA**
Arabako Lautada. 26590/3

TRAILER GIDARIA
Debagoiena. 26666/2

ZAMA-MUTILA
Urola. 26667/2

PEOI-LAGUNTZAILERA
Urola. 26675/2

**GALDARAGINTZARAKO
TRAZATZAILERA**
Bilbo. 26692/2

ILEAPAINZAILERA
Bilbo. 26720/1

ELEKTRIZISTA
Tolosa. 26769/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 26883/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 26884/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 26884/1

TRAILER GIDARIA
Ibai eskumaldea. 25969/3

DENDARIA
Bilbo. 26499/6

BEIRA-LANGILEA
Abanto. 26636/4

FLEKTRIZISTA
Tolosa. 26769/3

**ADMINISTRARI
LAGUNTZAILERA**
Bilbo. 26846/1

**INFORMATIKA
TEKNIKARIA**
Bilbo. 26868/2

**SEGURTASUN
ZAINZAILERA**
Durangaldea. 26431/2

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Ezkerraldea. 26454/3

Langai eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26

IRRINTZI
kafetegia

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

**ANDRES
PINTURAK**

Berritzatze-lanak
Obra zuria
Estaldurak
Dekorazioa

Zubiaurre 19.
943 76 14 24/689 90 53 37

**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

KARLOS GALARRAGA

aga siz

margo-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Sin City Six, Meows eta Teen Dogs taldeen rock emanaldia gaur gauean Jam aretoan

Loquilloren kontzertua, berriz, datorren eguenera atzeratu da

Gaur, eguakitza, gaueko 22:30etatik aurrera eta Udazken Kulturalaren egitarauaren barruan, hiru rock talde arituko dira Jam aretoan: Sin City Six, Meows eta Teen Dogs.

Sin City Six, lehengo Pleasure Fuckers-etik sortutako taldea dugu. Bi single plazaratu dituzte oraingoz, eta Espainiako hainbat hiritan aurkeztu ondoren, egiten ari diren bira txiki batek ekarri ditu Bergarara, beraien punk rock musika eskainiz. Ahotsa, musika munduan ezaguna den eta Estatu Batuetan pelikula bat ere egin duen Lee Robinsonek jartzen du, lehengo Pleasure Fuckers taldeko abeslaria, Kike Turmix ospetsua ordezkatuz. Talde honekin batera, Teen Dogs donostiarrak eta Meows kataluniarrak arituko dira. Azken hauek Bergarako jaietan ere egon ziren, Bideberrin, eta oso itxura ona eman zuten. Power-pop musika estiloa eskainiko digute.

LOQUILLO DATORREN EGUENEAN


Bestalde, gogoratu, zapaturako iragarrita zegoen Loquilloren kontzertua atzeratu egin dela, eta datorren eguenean, hilaren 23an izango dela gaueko 22:30etan Amillagako aretoan.



Sin City Six taldearen punk-rock soinuak entzungai izango dira gaur Jam aretoan.

Hilaren 27an, berriz, beste kontzertu bat egongo da, Jam aretoan hau ere, Lagunak futbito taldeak antolatuta. Hainbat talde arituko dira bertan: Saioa eta Izaro, Iosune eta Edurne, eta Aitzol Mujika, hirurak bergararrak, eta Tanatos, Latex eta Los Padrinos hain zuzen ere. Bertan bildutako dirua nesken futbol taldeei laguntzeko izango da.

Azkenik, aipatu, beste bi kontzertu ere badaudela iragarrita datozen Gabonetarako Jam aretoan. Alde batetik, hilaren 30ean, eguena, euskal musikaz gozatzeko aukera izango dugu Kepa Junkera eta Anariren eskutik, Udalaren Kultura Zerbitzuak antolatuta. Eta urtarriaren 8an, bestetik, Color Humano eta Marea izango ditugu entzungai.



Beart-ek Bolun duen arte gunean antolatuko da erakusketa.

Pintura erakusketa Beart-en lokalean hilaren 26ra arte

Gaur, eguakitza, zabalduko da arratsaldeko seietan, Beartek eta Kultur Zerbitzuak antolatutako pintura erakusketa, eta hilaren 26ra arte izango da zabalik. Bertan, 40 koadro inguru egongo dira ikusgai, Bergarako pintoreenak guztiak. Aurreko urteetan ez bezala, aurtengoan, Beartek Bolun daukan lokalean jarriko dira

koadrook. Horrela, bide batez, Bearten lokala ikusteko aukera izango dute bertarantz direnek, non urte gutxian zehar hainbat ikastaro eskaintzen diren. Pintura erakusketaren ondoren, eskultorena zabalduko da lokal berean. Honetan ere, herriko artisten lanak ikus ahal izango dira urtarriaren 9ra arte.

**GABONETAN EUSKAL PRESOAK
ETA ERREFUXIATUAK ETXERA**

EUSKAL PRESOAK



EUSKAL HERRIRA

**BALKOI BAT,
KARTEL BAT**

Adieraz ezazu zure elkartasuna kartel hau balkoian ipiniz

KARTELAK SALGAI:

San Martin plaza, Merkatu txikia,
Oxirondo azoka, Arrano, Pol-Pol...

Euskal Presoak Euskal Herrira

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Xehetasun. 2. Izana. Eguratsa. 3. Bailara. Diru.
4. Jardun. Galtzak. 5. Iltzez josia. Bat. 6. Behiaren ar.
Sufrea. Lehenengoa. 7. Tona. Ardien zaintzailea.
8. ... egina, total egina. Galdetzaile bat. 9. Bi bokal.
Baldintzetan. 1.000 kilo. 10. Iruzurra, engainua.
Interjekzioa.

Goitik behera

1. Arboladiak. 2. Ezer ekartzen duen pertsona. Banoa.
3. Pluralean, zuhaitz mota. Fosforoa. 4. Emakue izena.
Galdetzaile bat. Barioa. 5. Ihauterietako pertsonaia.
6. Tona. Argi, hitz elkarketan. Herri hizkeran, zer. Röntgen.
7. Zilarra. Bulartsua. 8. Apur. Arnas ezak hil. 9. Zorua.
Fruitu-mota. 10. Jakina! Anaia, hitz elkarketan.

Soluzioa

10. Noski! Anaia.
9. Etoa. Anaia.
7. Ag. Ausarta. 8. Piska. Ito.
5. Zapanzar. 6. T. Art. Ze. R.
3. Hartzak. P. 4. Ana. Zer. Ba.
1. Zuhaitzak. 2. Ekarte. Noa.
Goitik behera
9. Ao. Ba. Tona. 10. Kaparra. Ail.
7. T. Arzaina. 8. Ink. Zertan.
5. Itzaina. I. 6. Zezen. S. A.
3. Harana. Sos. 4. Ari. Prakak.
1. Zehazpen. 2. Ukana. Giro.
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein auzotan dago trenbideko kaxeta hau?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Nor da Aritzeta abesbatzako zuzendaria?
A- Joxe Arrieta
B- David Azurza
C- Imanol Urzelai
2. Zein da Bergarako Athletic Club peñako presidentea?
A- Fermin Hernandez
B- Luis Fernandez
C- Koldo Agirre
3. Zein enpresarekin arituko da Iker Muruamendiaren pilotaria profesionala?
A- Aspe
B- Asegarce
C- Mutxoli



Super BM emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria, **Maritxu Murgiondo**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maritxuri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Bordatxo** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Campo Viejo
beltza edo gorria
499 PTA!
Super BM en beti eskaintzarik onenak!

Legazpin jaixo zan eta ixa 15 urte daroatza Pilik Bergaran. Avenida tabernan ibilli zan lanian eta orain dala 5 urte Ikus.Bi denda ireki zeban. Harrezkero, bertan dabil lanian Ariadna eta Txarorekin.

Zer izan nahi ziñuan txikittan?
Pelukeria. Eta izan nitzan, bost urtez.

Jarraitzen dozu orain?
Biherrezkuak orrazten: anaia, gizona eta semia.

Zela sartu ziñan moda-kontuetan?
Beti gustau izan jat eta probatziarren.

Ze erropa saltzen dozu?
36 tailatik hasi eta 54raino, klasikua gehixen bat.

Zuk ze erabiltzen dozu?
Nahiko klasikua naiz.

Zer ez ziñuke inoiz jantziko?
Praka kuadroan modernuak.

Ondo jazten da Bergaran?
Bai, apal, baiño ondo.

Gabonetan erropia oparitzen da?
Bai.

Zuk zer gomendatzen dozu?
Diruaren arabera: pañuelua, bufandia, trajia...

Ze opari hartuko ziñuke gustura?
Ez daukat ezer berezirik buruan.

Inoiz jaso dozun oparirik onena?
Nere semia eta alabia.

Gabonak gustatzen jatzu?
Bai.

Egin dittuzu erosketak?
Azkeneko egunera arte ez.

Plan berezirik badaukazu?
Jan eta deskantsatu.

Olentzero edo Erregiak?
Bixak, umiak dauzkat ta.

Pili Garzia

Bergarako tokirik polittena?
Usondo parkia.

Bergara ala Legazpi?
Bergara.

Lankide ona zara?
Bueno, besteek baietz esaten dabe.

Jende aurrian lan egittia gustatzen jatzu?
Bai. Jendiakin egotia bihar dot.

Zer ez jatzu jendiari barkatzen?
Zuk dana emotia eta jendiak gutxiago bueltatzia.

Zure defektorik handixena?
Gauzak azkarregi egin nahi izatia.

Eta birtuterik handixena?
Neure burua pertsona normaltzat edukitzia.

Zelako umoria daukazu?
Egunaren arabera, baiña normala.

Erraz jartzen zara triste?
Bai, baiña azkar pasatzen jat.

Parre egitteko zer?
Nere semia eta alabia.

Afiziño bat?
Etxian lasai egotia.

Urtaro bat?
Udaberrixa, eguna luzatzen hasten dalako.

Asteko egunik onena?
Domekia, etxian egoten naizelako.



Zorionak denoi!

Espoloia 4, behea. Bergara
Tf. 943 76 72 76

**Ileapaindegi
mistoa
•
Estilistak**



21.
menderako
alda
ezazu
zure
ESTILOA





Beheko Estazioko estampa, 1969

Garai bateko Pazkuetan, egitarauko ekitaldirik arrakastatsuenetakoa estanpen lehiaketa izaten zen. Koadrilek pil-pilean ziren gaien inguruko parodiak gertatzen zituzten eta jende asko biltzen zen San Martin plazan partaideen jantziak eta eszenografia ikusteko. Piskanaka-piskanaka lehiaketak indarra galdu zuen eta 1970eko hamarkadan jaietako programatik desagertu egin zen.

Goiko argazkia 1969. urteko Pazkuetan aterakoa ei da eta azken asteotan zeresan ugari eman duen Beheko Estazioaren inguruan egindako estampa ikus dezakezue. Bertan agertzen

direnek herrian tren zegoenean eta tren desagertu ondorengo egoera islatu nahi izan zituzten, estazioaren "hilobiratzeak" (esanguratsua da kartelean irakur daitekeen RIP hitza) bertako langileengan eta herriarengan ekarritako aldaketak azalduz.

Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Antonio Alberdi, Iñaxio Alberdi, Begoña Aranguren eta Mikel Retege.

Jarrita: Bittor Alberdi, Iñaki Akizu eta Jon Bilbao.

Argazkia: Julio Retege

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

SUBIATI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai 2
943 6 51 65

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu



itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguru aaldatzea **ez zaizu ezer kostako**.

Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean**.



MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Sarean

Masterreka 13, behea. BERGARA.

943 76 91 08

Bergarako Internet gunea



**Enpresetarako
Internet bidezko
soluzioak**

- Web orrien programaketa
- Mantenimendua
- Ikastaroak



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku

**ESKANTZA
BEREZIAK**

Sofa
leku

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**



Sofa
leku

